




Gradu Amaierako Lanaren Arautegia (GRALa)

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea

Haur Hezkuntza Gradua
Lehen Hezkuntza Gradua
Gizarte Hezkuntza Gradua
Pegagogia Gradua
Filosofia Gradua
Gizarte Antropologia Gradua





Zioen azalpena

822/2021 Errege Dekretuak, irailaren 28koak, Unibertsitateko irakaskuntzen antolaketa eta irakaskuntza horien kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen dituenak, 1393/2007 Errege Dekretua ordezkatu du.

Besteak beste, honakoa xedatzen du: Gradu Amaierako Lana (GRAL) nahitaezkoa da eta nahitaez gainditu behar da titulu ofiziala lortzeko. Gradu Amaierako Lanak 12 kreditu izango ditu, ikasketa planaren bukaerako fasean egin beharko da eta tituluari lotutako gaitasunen ebaluazioa egitera bideratuta egon beharko du. Dekretuak ez du lana egin eta ebaluatzeari buruz beste xedapenik jasotzen eta, hortaz, unibertsitate bakoitzak arautu behar du bere autonomiaz baliatuta.

Testuinguru honetan, Gradu Amaierako Lanak berdintasunez planifikatu eta ebaluatuko direla bermatuko duten irizpide eta prozedurak bateratzeko xedez eta titulazio bakoitzaren berezitasunak berezitasun, Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatearen beharretara egokitutako GRALerako araudi hau sortu da, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHUko GRALaren araudia errespetatuz eta aintzat hartuz.

(Fakultate Batzarrek 2025eko martxoaren 12an onartu du)

1. artikulua.- Helburua eta ezarpen eremua

1. Arautegi honek Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko Lehen Hezkuntza, Haur Hezkuntza, Gizarte Hezkuntza, Pedagogia, Filosofia eta Gizarte Antropologia graduetako Gradu Amaierako Lana (GRALa) definitzeko, egiteko, defendatzeko, kalifikatzeko eta tramitatzeke irizpideak jasotzen ditu.
2. Araututako jarduera profesionaletan aritzeko gaitasuna ematen duten tituluetak Gradu Amaierako Lanak kasuan kasuko tituluak egiaztatzeke baldintzak zehazten dituen aginduan xedatutakoaren arabera arautuko dira, betiere, aipatutako aginduaren menpe.
3. Arautegi honen edukia, besteak beste, ebaluazio sistemaren, kredituen transferentzia eta onarpenaren eta ikasleen mugikortasunaren arloetan indarrean dauden UPV/EHUko gainerako arau eta prozedurekin osatuko da.



Beste erakunde publiko zein pribatutan egiten diren Gradu Amaierako Lanak arautegi honetan eta kasuan kasuko lankidetzak hitzarmenean zehaztutakoari jarraituta garatu beharko dira.

2. artikulua.- Gradu Amaierako Lanaren izaera

1. Gradu Amaierako Lana gauzatzeko, ikasle bakoitzak, banaka proiektu, memoria edo azterlan orijinal bat egin behar du. Ezin da, inola ere, beste ikasle batekin elkarlanean egin. Zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean garatuko da, eta bertan graduako ikasketa aldian jasotako prestakuntza gaiak eta lortu dituzten ahalmen, gaitasun eta trebetasunak bildu eta garatuko dira.
2. GRALa graduekin lotutako gaitasun orokorrak aplikatzeari eta, oro har, ikaslearen ikasketa arlokoak izango diren datu garrantzitsuak bilatu, kudeatu, antolatu eta interpretatzea eskatzen du, ikasleak gizarteari, zientziari, teknologiari edo etikari loturiko gai nabarmenei buruzko gogoeta kritikoa egin dezan eta logikoa eta sortzailea izan dadin.
3. GRALak UPV/EHUren zeharkako gaitasunak eskuratzera bideratuta egon behar du eta arreta berezia eskainiko dio diziplina bakoitzak jasangarritasunari eta balio demokratikoei eta bizikidetzari egin diezaiokeen ekarpenari.
4. Gradu Amaierako Lana defendatu eta ebaluatu ahal izateko, egiaztatu beharko da ikasleak ikasketa planeko gainerako irakasgai guztiak gaindituta dituela, Gradu Amaierako Lanari dagozkion kredituak izan ezik.
5. Gradu Amaierako Lana jabetza intelektualari buruzko legeak babestutako lana da. Ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideen titularra lana egin duen ikaslea izango da, indarreko legerian xedatutako baldintzen arabera.
6. GRALari dagozkion kredituak nahitaez eskuratu behar dira eta ezin izango da inoiz baliozkotzerik eskatu.

3. artikulua.- Gradu Amaierako Lan motak

1. Gradu Amaierako Lanek izaera akademikoa izango dute eta ikasketa planean jasotako gaitasunak eskuratzera bideratuko dira. Lanen artean aurreikusten dira berrikuspen bibliografikoak, berrikuntzako proposamenak, ikerkuntzako proiektuak edo, oro har, UPV/EHUk gure alorrei lotuta proposatzen dituen ildoekin bat egiten duten proiektuak.



2. Edonola ere, idatzizko memoria edo proiektu batean gauzatuko da lana eta erantsita izango ditu, hala dagokionean, ikastegiak zehaztutako prozedurari jarraikiz erantsi beharreko materialak.

4.artikulua: Gradu amaierako lana egiteko irizpide nagusiak

1. Gradu Amaierako Lana garatu eta idazteko ikasleak ondoko irizpideak beteko ditu, lanaren zuzendariaren laguntzaz:

- a) UPV/EHUn erakunde irudia eta EHU tipografia erabiltzea.
- b) Hizkera inklusiboa erabiltzea eta generoren ikuspegia txertatzea gizakiekin zerikusia duten lanetan.

Egindako beste jarduera akademiko batzuetatik (praktiketarik, adibidez) eratorritako informazioa erabiltzen den kasuetan, pertsonen buruzko informazioa bakarrik akademikoki justifikatuta badago erabiliko da eta beti ere modu anonimoan.

2. Ikastegiek zainduko dute Gradu Amaierako Lanak UPV/EHUn i3 hezkuntza ereduaren arabera egiten direla. Ildo horretan, erakundeek (sektore publikoa, sektore pribatua, hirugarren sektorea eta GKEak) dituzten benetako beharrei edo erronkei buruzko Gradu Amaierako Lanak sustatuko dira, gizarte erronkei eta jasangarritasunaren dimentsio guztiei arreta berezia eskainiz. Era berean, 2030 EHUagendarekin lerrokatutako Gradu Amaierako Lanak egitea bultzatuko da eta lan esparru horien berri emango da irakasleen eta titulazioetako ikasleen artean.

3. Unibertsitateko irakaskuntzen antolamendua eta haien kalitatea bermatzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 28ko 822/2021 Dekretuak ezarritako ikasketa planak diseinatzeko printzipio gidariak garatuz, Gradu Amaierako Lan guztietan jasoko da egindako lanari buruzko gogoeta bat, printzipio eta balio demokratikoei eta garapen jasangarrirako helburuei jarraituz eginga. Gogoeta horrek aztertuko du GRALak balio horiekin eta JGHe osatzen duten lan esparruarekin duen lotura, eta/edo horiekiko ikuspegi kritikoak planteatu ditzake.

Gogoetak arreta berezia jarri ahal izango die honako hauei:

- Giza eskubideen eta oinarritzko eskubideen errespetua, baita balio demokratikoena ere.
- Genero berdintasunaren eta tratu berdintasunaren errespetua, eta inor ez diskriminatzea, arrazoia edozein delarik ere: jaiotza, jatorri nazional edo



etnikoa, erlijioa, sinesmen edo iritzia, adina, desgaitasuna, sexu orientazioa, genero identitatea edo genero adierazpena, sexu ezaugarriak, gaixotasuna, egoera sozioekonomikoa, edota beste edozein ezaugarri edo inguruabar pertsonal zein sozial.

- Irisgarritasun unibertsalaren eta pertsona guztientzako diseinuaren printzipioen errespetua.
- Jasangarritasuna eta aldaketa klimatikoa tratatzeko era.

Gogoetak 200 hitz izango ditu gutxienik, eta atal espezifiko bat izango da lan idatzian. 822/2021 EDn aipatzen diren erreferentziazko arauekin batera, 2030 EHUagenda erabili ahal izango da gure unibertsitatearen erreferentziazko arau espezifiko gisa.

Gainera, ikasleak lanaren erreferentziazko GJHak adieraziko ditu, unibertsitateak edo ikastegiak antolatuko dituen sistemen bidez.

5. artikulua: Matrikula eta deialdiak

1. Ikastegiko batzarrak edo hark eskuordetutako batzordeak, GRALaren ikasturteko kudeaketa egutegia eta GRALen gidak onartuko ditu.
2. GRALerako matrikula Fakultateak horretarako ezarriko dituen 3 epeetan (otsailean, ekaina/uztailean eta irailean) egingo da. Matrikula hori egiteko, ikasleak Gradu Amaierako Lanaren defentsa egin ahal izateko 2.4 atalean ezarritako baldintza orokorrak bete beharko ditu.
3. Matrikulak eskubidea emango dio ikasleari ikasturte bakoitzean bi deialdi ofizialetara aurkezteko. Lana unean uneko ikasturtean ezarritako deialdietan defendatu ez duen edo gainditu ez duen ikasleak matrikula egin beharko du berriro hurrengo ikasturtean.
4. Ikasleek Gradu Amaierako Lana zein hizkuntzatan egin eta defendatu nahi duten zehaztuko dute, baldin eta ikasketa planean bestelakorik ezarrita ez badago.
5. Gradu Amaierako Lanaren defentsa eskaerak hiru epeetan (otsailean, ekaina/uztailean eta irailean) egiteko aukera izango dute ikasleek.
6. Gradu Amaierako Lanaren ebaluazioaren akta unibertsitateko ebaluazio arautegiari jarraiki itxi beharko da eta epaimahaiko idazkariaren ardura izango da akta behar bezala bete eta ikastegiak zehaztutako prozedurari



jarraiki administrazio zerbitzuei helaraztea. Horrez gain, ikastegiko zuzendariari dagokio artikulu honetan ezarritakoa betetzen dela zaintzea.

7. Ikasturte bakoitzaren hasieran GRALa bakarrik dutenak, automatrikula garaian edo ikasturtearen hasieran matrikulatu beharko dira. Ez dira onartuko Urriaren 30tik aurrera iristen diren eskaerak.
8. Ezin izango zaie GRALik esleitu matrikula indarrean ez duten ikasleei. Hortaz, iraileko matrikula epealdiaren ostean, matrikulatuta ez dauden ikasleei aurretik zuten GRAL esleipena bertan behera utziko zaie.
9. Ezin izango dira inoiz baliozkotu GRALari dagozkion kredituak.
10. Gradu Amaierako Lana ez da sartuko inoiz mugikortasun programetan.

6. artikulua.- Zuzendaria, hura esleitzea eta lanerako gaia aukeratzea

1. Gradu amaierako lanaren zuzendaria izango da HEFAko gradu horretan eskolak ematen dituen saileko irakasle bat.
2. Gradu Amaierako Lanak zuzendari bat baino gehiago izan ahalko ditu.
3. Ikasleak Gradu Amaierako Lan osoa edo horren zati bat UPV/EHU ez den erakunde batean egiten badu, praktika hitzarmen baten barruan, Gradu Amaierako Lana unibertsitateaz kanpoko pertsonak zuzendu ahalko dute, baina kasu horretan 1. ataleko baldintzak betetzen dituen zuzendarikide-tutore bat ziurtatu beharko da.
4. Graduan irakaskuntza duten sail guztiek eskaini eta zuzendu behar dituzte Gradu Amaierako Lanak, ikastegiak Gradu Amaierako Lanen Arautegian zehaztutakoari jarraituz.
5. Sailaren ardura izango da ziurtatzea bere eskaintzan proposatutako gaiak Graduan lortu beharreko gaitasunekin koherenteak direla.
6. Baldintzak betetzen dituzten (ikasgai guztietan matrikulatuta egon eta 168 ECTS gaingiduta izan) ikasleek esleipen prozesuan parte hartu ahal izango dute eta irailean izango dute lanaren eta zuzendariaren berri.
7. Lehen esleipenean parte hartu ezin izan duten ikasleek beste aukera bat edukiko dute urrian zehar.
8. Urtebetera, ikasleak edo zuzendariak lanari uko egin ahal izango dio eskaera formala eta justifikatua eginez gero.
9. GRALaren esleipenak 2 ikasturteko iraupena izango du.



7.artikulua.- Zuzendariaren eginkizunak eta bere lana aitortzea

1. Irakasle zuzendariaren ardura izango da ikasleari lanaren ezaugarriak azaltzea, lana egiteko orientazioa ematea eta zehaztutako helburuak betetzen direla zaintzea, baita lanaren jarraipena egin eta defentsarako txostena idaztea ere.
2. Zuzendari lana egiteak aitortza izango du unibertsitatearen kasuan kasuko arautegian zehaztutakoari jarraituz.
3. Zuzendariak lanaren eragin etikoa aztertuko du izan ditzakeen ondorioak zehazteko.
4. Zuzendariak laguntza emango dio ikasleari:
 - Lanaren egitura zehazteko.
 - Iturri egokiak aukeratzeko eta erreferentziak zuzen egiteko.
 - Gizakiekin, haien datuekin eta laginekin ikerketa jardueraren bat egin behar den lanen kasuan, zuzendariak kasu hori identifikatzen eta akademikoki behar bezala justifikatzen lagunduko dio ikasleari. Halakoetan, aholkuak emateaz gain, azalduko dio nola bete behar diren lan akademikoetarako indarrean dauden jarraibide etiko espezifikoak (UPV/EHUko GRAL Arautegiko 9. artikuluan aipatzen direnak).
 - Egindako beste jarduera akademiko batzuetatik (praktiketarik, adibidez) eratorritako informazioa erabiltzen den lanen kasuan, zuzendariak kasu hori identifikatzen eta akademikoki behar bezala justifikatzen lagunduko dio ikasleari eta azalduko dio zer egin behar duen informazioa anonimoa izan dadin.
 - Lana idazteko.
 - Epaimahaiaren aurrean egin beharreko aurkezpena prestatzeko.

8 artikulua.- Lana kanpoko erakundeekin lankidetzan egitea

1. GRALa unibertsitatetik kanpoko erakunde batekin egin ahal izango da. Horretarako ezinbestekoa izango da lankidetzak hitzarmena sinatzea.
2. Lankidetzak hitzarmen horiek UPV/EHUko GRAL Arautegian zehaztutakoari jarraikiz egingo dira, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren



Funtzionamendurako Arautegiko 25.f) artikulua babesean (2009ko maiatzaren 26ko EHAA).

Lankidetzaren hitzarmena errazteko, Gradu Batzordeak hitzarmen ereduak onartuko ditu; arautegi honi erantsiko zaizkio eta UPV/EHUK horiek erabiltzea sustatuko du. Hitzarmena bat badator onartutako ereduaren batekin, ikastegiak zuzenean sinatu ahal izango du. Ereduarekin bat ez badator, ikastegiak gainbegiratu egingo du edukia bat datorrela arautegi honekin, eta, ondoren, sinatu egingo du.

Hitzarmena sinatuko dute erakunde lankideko kide batek eta ikastegiko zuzendaritza taldeko kide batek (batak zein besteak hitzarmena sinatzeko gaitasun nahiko izan behar du).

3. GRALa beste erakunde batean eginez gero, alde aurretik zehaztu egin beharko da konfidentzialtasuna dela-eta mugarik dagoen emaitzaren bat aurkezteko edo argitaratzeko edo lana jendaurrean defendatzeko. GRALa egitean erabiliko bada, modu justifikatuan eta arrazoi akademikoengatik, erakundearen sortu den pertsonen buruzko informazioak, modu anonimoan erabiliko da eta bermatuko da inplikaturako pertsonak ezingo direla identifikatu, lan idatzian azalduz zein neurri hartu den hori ziurtatzeko.

9. artikulua.– Ondorio etikoak dituzten GRALak eta UPV/EHUKo Etika Batzordearen jarraibidea betetzea

1. Lanak eskatzen badu gizakiekin, haien datu eta laginekin jardueraren bat egitea, UPV/EHUKo ikerketa eta irakaskuntzaren arloko Etika Batzordearen webgunean argitaratutako irizpideak bermatuko direla ziurtatu behar dute ikasle zein zuzendariak, UPV/EHUKo GRAL arautegiko 7.5 artikuluan adierazitakoaren arabera.
2. Aipaturako kasu horietan, webgunean dagoen Etika eta Konfidentzialtasun bermea adierazten duen dokumentua erantsi beharko da lanaren amaieran.
3. Ondorio etikoak dituzten lanaren defentsan, epaimahaiak ebaluatuko du, baita ere, bete diren lan akademikoetarako indarrean dauden jarraibide etiko espezifikoak. Izan ere, ondorio etikoak ezagutzea eta jarraibideak betetzea zeharkako gaitasunak dira, ikerketa jarduerari ekiteko aukera ematen duten lanetan frogatu beharrekoak.

10. artikulua.– Gradu Amaierako Lanaren aurkezpenean eta defentsan



1. Ikasleak GRALaren matrikula egingo du GAUREn, dagokion deialdiko prozeduran azaldutako epeetan.
2. Matrikula egin ostean, ikasleak defentsa eskaera egin beharko du GAUREn, dagokion deialdiko prozeduran azaldutako epeetan. Defentsa eskaeran ikasleak aukera izango du GRALeko izenburua aldatzeko. Izenburu hori izango da espediente akademikoan agertuko den behin-betiko izenburua.
3. Zuzendariak defentsa eskaeraren jakinarazpena jasoko du eta honen berrikuspena egin beharko du GAUREn, dagokion epeetan eta ebaluazio txostena igota.
4. Zuzendariaren berrikuspena burututa, ikasleak aukera izango du dagokion epean bere lana ADDI Akademikora igotzeko. Lanaren bertsio hau behin-betikoa izango da eta honen kopia da, hain zuzen, epaimahaikideek jasoko dutena.
5. Epaimahaiak sortu ostean, epaimahaikide bakoitzak jakinarazpena jasoko du lana ADDI Akademikotik deskargatu ahal izateko.
6. Ikasleak aurrez aurre defendatu beharko du Gradu Amaierako Lana.
7. Ikasle bakoitzak Gradu Amaierako Lanaren defentsa egiteko gehieneko denbora tarte bat edukiko du eta denbora tarte horretan bere lanaren helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak azaldu beharko ditu. Ondoren, epaimahaiko kideek egin diezazkioketen galdera, argibide edo iradokizunei erantzun beharko die.

11. artikulua.- Balioespen epaimahaiaz.

1. Epaimahaiak Ikastegiko batzarrak edo eskuordetutako batzordeak ezarritako moduan eratuko dira, matrikulatutako ikasle kopurua eta egin diren Gradu Amaierako Lanen gaiak kontuan hartuta. Edonola ere, bermatu egin beharko da epaimahaiak egongo direla bi hizkuntza ofizialeterako. Horrez gain, Lehen Hezkuntza eta Haur Hezkuntza Graduen kasuan, Atzerriko Hizkuntzako aipamena lortu ahal izateko, GRALa ingelesez egin eta defendatu beharko da.
2. Epaimahai bakoitza hiru kidek eta gutxienez ordezko batek osatuko dute, eta guztiak izan beharko dira graduako titulua irakasten den ikastegiko irakasleak.
3. Epaimahai bakoitzean epaimahaiburu bat eta idazkari bat egongo dira.



12. artikulua.- Ebaluazio eta kalifikazioaz.

1. Ikaslearen aurkezpena bukatutakoan eta zuzendariaren txostena ikusitakoan, epaimahaiak ikasleari eman beharreko kalifikazioa eztabaidatuko du ikasketen gidaliburuan Gradu Amaierako Lanari buruz argitaratutako irizpideen arabera eta titulua egiaztatzeko memorian ezarritakoari jarraiki.
2. Ikasleak lana gainditzen ez badu, epaimahaiak lana hobetzeko iradokizunak jasotzen dituen txosten bat helaraziko dio ikasleari, lana berriz ebaluatzen denerako. Zuzendariari ere txostenaren kopia bat bidaliko zaio.
3. Kalifikazioa epaimahaiak zehaztuko du, eta 0tik 10era bitarteko zenbakizko eskalan emango da, hamartar bakarrarekin, eta kalifikazio hori letraz ere adieraziko da:

Aurkezteke(AG)

0 – 4,99: Suspentso (S)

5,0 – 6,99: Nahiko (N)

7,0 – 8,99: Oso ongi (OO).

9,0 – 10: Bikain (B)

Deialdiren batean defentsa eskubideari uko eginda, aurkezteke jarriko da. Ikasturteko GRAL guztiak kalifikatu ondoren, ikastegiak "ohorezko matrikula" eman ahal izango die 9,0 kalifikazioa edo handiagoa lortu duten ikasleei, baina, betiere, gehienez ere Gradu Amaierako Lanaren defentsan kalifikaziorik onena lortu duten ikasleen %5ari.

Era berean, 9,5 kalifikazioa edo handiagoa lortu duten ikasleek lana ADDI Publikoan agertzeko eskaera egin ahal izango dute. Horretarako, eskaera orria bete beharko dute zuzendariaren oniritziarekin.

Plagioa detektatzen bada edo horren susmoa badago, UPV/EHUren protokoloa aplikatuko da (<https://labur.eus/jrdG7>). Horrek 0 puntuko kalifikazioa ekarriko luke jarduera edo lan akademikoen azken bertsioan hautematen bada.

4. Gradu Amaierako Lanen azken kalifikazioen berrikuspenak edo erreklamazioak unibertsitateko ebaluazio arautegiari jarraiki egingo dira baina epaimahaiak tartean dagoenez, ebaluazioaren lehenengo berrikuspena epaimahaiak berak egingo du. Ondoren, ikastegiko



erreklamazio batzordeak emango du erabakia, erabaki horren kontra gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio unibertsitateko errektoreari.

5. Nolanahi ere, Gradu Amaierako Lanen kalifikazioak urriaren 31 baino lehen ageri behar dira matrikulatutako ikaslearen espedientean, gai honi dagokion atalean.